OCW 2015

# BIDEOAK LANTZEKO KOMENTARIOA

Goian jarritako zerrendatik GUTXIENEZ HIRU BIDEO ikusi behar dituzu (partzialki ala erabat). Hauek ikusi ondoren, laburki erantzun ondoren proposatzen denari:

**1 BIDEOA: Haurmen-publizitatearen dokumentala**

Bideo honetan, elkarrizketatutako pertsona biek emandako iritzien artean oposizio argia dago. Pentsa ezazu jostailu-fabrikatzaileen elkarte baten interesak defendatzen dituzula. Zer interpretazio emango zenioke iritzi horiei. Nola bideratuko zenuke 'Nag effect' delakoa zuk gauzatu beharko zenukeen publizitate kanpainan.

**Iradokizun gehigarria**: Begira ezazu 9 eta 10 Unitateetan, bereziki marketin sozialeko ideiei dagokionez komertzializazio erabakiak garatu behar direnean.

**2 BIDEOA: Ko-Kreazioa ala Sormen bateratua eta Produktu Berrien Garapenean Berrikuntza Irekia**

Bideo honetan, Marketin eta Zuzendaritza Estrategikoko Kudeaketan oso garrantzitsuak diren bi kontzeptu garatzen dira : berrikuntza Irekia eta Ko-kreazioa. Kasu honetan multinazional batzuetako adibideak ematen dira. Begiratu hitzazu 1 eta 4 unitateetan landu diren diapositibak eta esan zeintzuk ideia/kontzeptu azpimarra daitezkeen hemen. Zergatik?

**Iradokizun gehigarria**: Begira ezazu 1 eta 4 Unitateetan, bereziki ko-kreazio ala sormen bateratuaren ideiak.

**3 BIDEOA: Pardelen erosketa eta asoziaturiko onurak**

Bideo honetan, publizitate-kanpaina baten bitartez fardel pakete baten erostatik eratorritako onura sozialak ikertu daitezke. Kasu honetan pixoihalak erosterakoan diru kantitate bat bideratzen zen ekintza sozialetan inbertitzeko. 10. Unitean PREZIO-POLITIKARI buruz emandako jarraibideak ikertu eta aplikatu itzazu. Zein da iragarkiaren helburu-den biztanleria?

**Iradokizun gehigarria**: Begira ezazu 10. Unitatea eta prezioa ezartzeko eredua ikertu ezazu.

**4 BIDEOA: Zara Planet**

Dokumental honetan INDITEX taldearen arrakasta itzela azaltzen duten faktoreak azaltzen dituzte. Haien guztiak laburbildu behar izango bazenitu (marketineko politikaren 7Pak hartuta), zeinekin geratuko zinateke? Zein ideiaren bitartez azpimarra daiteke hori?

**Iradokizun gehigarria**: Pentsa ezazu produktu baten ideia izaten den momentutik, hura fabrikatu eta merkaturatu orduko ematen diren etapa guztietan. Begira ezazu 6 eta 10. Unitateak ideiak hartzeko.

**5 BIDEOA: Irakasle baten lehen klase eguna**

Gaztelaniazko bideo honetan (ingelesez azpitituluak jarrita) erakunde batek mezu argi bat ematen du. Zerbitzuen 7Ps-etatik ”Pertsonak” atalari dagokio ideia. Pentsa ezazu iradokitako irakasleriaren garrantzia zein den.

**Iradokizun gehigarria**: Pentsa ezazu Lehen hezkuntzako egon daitezkeen *stakeholder* guztiei buruz. Adibide moduan, pentsa ezazu Eliza Katolikoan erakunde bezala eta bere *stakeholderrak* adierazi. 2. Gaiko kalitatearen kudeaketaren kontzeptuetan eta 9 eta 10 unitateetan oinarritu zaitez argudiatzea emateko.

**6 BIDEOA: Banka Sistema ikertzen duen bideoa (filmaren zatia)**

Bideoa ikusi ezazu eta pentsatu zer modutan ahal izango duen banku batek:

1) Bezeroak edozein langilerentzako garrantzitsuak direla ziurtatu

2) Bezeroak mantentzeko aukerak baloratu eta hauek dirautela ziurtatu

3) Bezeroengandik etekin gehigarria ateratzeko formulak garatzen saiatu

**Iradokizun gehigarria**: 8 unitatean oinarritu zaitez argudiatzea emateko.

**7 BIDEOA: Martha Rogers aholkularia**

Bideo honetan Martha Rogers aholkulariak produktuan ala bezeroan oinarrituta egotearen arteko desberdintasunari buruz hitz egiten du. Ikus ezazu bideoa eta aipa itzazu desberdintasun horien idei nagusiak.

**Iradokizun gehigarria**: Begiratu ezazu 1 unitatea sakonki eta beste guztiak gainetik ideiak hartzeko.

**AZKEN OHARRA**: Iradokizun gehiagotarako edo informazio gehiago behar izatekotan, ona IDATZI dezakezu : unai.tamayo@ehu.eus ala jon.charterina@ehu.eus

**PROPOSTAUTKO BIDEOEN ZERRENDA**

1

https://www.youtube.com/watch?v=pwgFdyEnkl8

2

https://www.youtube.com/watch?v=6V1dWH4X9U0

3

https://www.youtube.com/watch?v=OYfJfx220lo

4

https://www.youtube.com/watch?v=ALPpvzgFElg

5

https://www.youtube.com/watch?v=gG8icHfUcQI

6

https://www.youtube.com/watch?v=_PgVXs6h3qc

7

https://www.youtube.com/watch?v=G8cnA0NJA2Q